



ELAK EZETZA EMANGO DIO BBKk ETA KUTXAK BAT EGITEARI

“ Negoziazorako euskal esparruaren ukapena eta lan baldintzen homologazioa arbuizatzea, bat egite honetan ardatz diren empresa-intereseekin guztiz koherentea da”

BBK eta Kutxako Kontseiluek eginiko proposamenaren gainean batzarrak erabaki bat hartzekoak diren honetan, ELAk azterketa bat egin nahi du prozesu honen garatzeaz eta garbi azaldu gure jarrera:

Joan deneko uztailaren azken egunetan BBK eta KUTXAko arduradunak ELAri zuzendu zitzaizkion jakinarazteko bat egite prozesuari hasiera emateko erabakia hartua zutela. Gure erakundearentzat argi geratu zen lehen unetik bilera haien helburu bakarra beharrezkoak dituzten botoak eskuratzea zela, ez besterik.

ELAk hasiera-hasieratik VITAL Kanpoan uzteagatik gaitzezpena agertu zuen. Aurkeztutako proiektua esparru politikoetan soilik adostua izan zela baloratu zuen ELAk, botere politikoaren banaketarekin zerikusia zuten interesen baitan, eta ez sozialki, ez eta ekonomikoki ere, ez zela somatzen inolako aldaketarik Kutxek gizartean jokatu behar duten funtzioan. Fusioari eman nahi zaion norabidea kritikatu genuen, gehiago zegoelako oinarritua merkatu-kuotan gizarte-ekintzan baino eta exijitzen genuen konpromiso handiagoa eta jarrera nabarmenagoa Euskal Herriaren egituratze ekonomiko eta sozialaren alde.

Hala ere, ELAk adierazi zien bi zuzendaritzei proiektuarekin aurrera egiten bazuten, bagenituela, jakina, mahairatu eta negoziatu nahi genituen erreibindikazio sindikalak. Helburu horrekin ELAk dokumentu bat helarazi zien zuzendaritzei era zuzenean edo zeharkakoan eragindako langileen lan baldintzen gainera. ELAk zioen dokumentu horretan Kutxetako arduradunek aukera bikaina zutela, besteak beste, behin-behinekotasunarekin amaitzeko, azken urteotan hitzetan soilik erabili duten helburua.

Negoiazio hauen emaitza ere gure aldarrietatik oso bestelakoa izan da, erabat dezepzionantea.

AKORDIOAK BOTEREAREN BANAKETA DAKAR LAN BALDINTZEN TRUKE

ELAren iritziz, EAJk eta CCOOk iritsitako akordioak lan-helburu eta sindikatuaren aldarrikapenen bazter uztea agerian uzten du beste helburu bati lehentasuna emateko: bi erakunde horien arteko kargu banaketari.

Akordio hau zuzenean eta zeharka eragindako langileen lan baldintzen lepotik gauzatu da (azpikontratak, zerbitzu-enpresak ...). Lehenengoentzat egoera diskriminatzaileak aurreikusten dira, lan-sari baxuak, ibilbide profesional amaiezinak, desarautze-prozesuak ... Bigarrenengoentzat, ahazte nabarmenena. Euren lanbaldintzak duintzea kontuan ez hartzea ez ezik, euren lanpostua mantentzea ere ez da bermatzen. ELAren iritziz, akordio honen alde egiteak dakarren ondorioa lanbaldintzen murriztea eta behin-behineko kontratazio-formulen ugalketa izango da.

EUSKAL ESPARRUA EZ DUTE ONARTZEN ESTATUKO ASKOZ MERKEAGOA DELAKO.

Ordezkaritza politikoaren gehiengoak (EAJ) Kutxaren Gobernu Organoetan botere politikoa banatzeko bi barruti ahalbidetzeko gauza izan da, baina ez da gauza bera gertatu negoziazio kolektiborako exijitzen dugun euskal esparruaren kasuan. ELAk argi utzi nahi du ukapen hau guztiz bat datorrela operazio honetan ardatz diren empresa-intereseekin. Ez da bakarrik “politika” kontua; ezta gutxiagorik ere. Nahi dutenean eta nahi dutenerako gai dira barruti desberdinak gauzatzeko.

Ez dute negoziazorako euskal esparrua onartzen garestia delako, enpresari moduan hartu nahi dituzten erabakiak gauzatzea askoz ere nekezagoa da eta, gure herrian hautatutako ordezkariak sindikala Estatuaren oso bestelakoa dela kontuan hartuta.

- Ikuspegi enpresarial batetik abiatuta euskal esparrua ez onartzea oso arrazionala da, oso koherentea: Estatuko esparruak erraztu egiten dio enpresariari bestelako negoziazio bat gauzatzea, ez sindikala eta, berez, ahulagoa. Horrelakoak dira negoziazioak Estatuan, aldezturik emaitza jakinekoak, zeinetan adostasunak esparru sindikaletik at dauden arazoietan aurkitzen diren.
- Estatu mailako negoziazioa oso eroso bizi den sindikalgintza eta benetako negoziazioa nahi ez duen patronalaren mesederako eratua da.

ELA EZ DAGO EGINKIZUN SINDIKALA GALBIDERATZEKO PREST

Fusioak aurrera egiten badu, ELAren jarrera –lanbaldintzak soilik negoziatzeko esparruetan– bazter utzitako elementu guztiak kontuan hartuak izan daitezke lan egitea izango da. Zentzu honetan, eginkizun sindikala galbideratzeko edozein saiakera gatzesten du; dela pribilegioen eta karguen banaketaren bitartez, dela –akordioan aurreikusi bezala– 1.000 € ordainduz ordezkari sindikal bakoitzeko. Sindikatuei “eskainitako” diru-kopuruek, irizpide sindikaletatik hain gutxi duen akordio honen eskutik etorriko direnak, adostasun honen norabidea are ageriago uzten dute.

Diru hori ez dugu nahi eta ez dugu jasoko.

Kutxa berrirako lanbaldintzen homologazio-akordioa lortzea izango da hemendik aurrera ere ELAren helburu nagusia, besteak beste, ondorengo puntuak kontuan hartuko dituenak:

- Lanbaldintzen homologazioa (hiru kutxenak erreferentzia hartuta, La vital).
- Bereizkeria eta eskala bikoitzak ezabatzea fusioak eragindako langile guztien kasuan.
- Azpikontrata eta Zerbitzu Enpresak gehiegi erabiltzea saihestea.
- Azpikontrata eta Zerbitzu Enpresetako langileei gutxieneko soldata bermatzea.
- Prozesu honetan esku hartzen duten bi kutxek partekatutako enpresetako langileen –bat egite honek eragindakoak baita ere– lanbaldintzak hobetzea.

ELAk ekintza sindikalaren aldeko bere apustua berrestea gain, euskal gehiengo sindikalaren eginkizuna konpartsa-paper hutsera mugatu nahi duen saiakera honi (akordio honen atzean dagoena) aurre egiteko erabaki sendoa dauka eta bere ezetza adierazi nahi dio berriz ere bi Kutxen bat egite proiektu guztiz enpresarial honi.

Bilbon 2008ko azaroaren 25an